navarra.es

# BOLETÍN Nº 118 - 19 de junio de 2019

# ORDEN FORAL 44/2019, de 6 de junio, de la Consejera de Cultura, Deporte y Juventud, por la que se aprueba la convocatoria del II Certamen de fotografía “Paisajes con Memoria”, las bases que la regulan y se autoriza un gasto de 2.000 euros. Identificación BDNS: 462519.

Este anuncio está guardado

La Sección de Gestión del Patrimonio Documental ha presentado un informe en el que indica que se propone convocar el II Certamen fotográfico Paisajes con Memoria, dedicado a Paisajes Energéticos de Navarra, cuyo plazo de presentación de trabajos finalizará el 6 de septiembre. El certamen de este año estará dedicado al Paisaje Energético, a fin de sensibilizar a la ciudadanía sobre el valor patrimonial de las instalaciones productoras o transmisoras de energía eléctrica de Navarra a través de la imagen.

Por lo expuesto, en ejercicio de las atribuciones conferidas por el Decreto Foral 199/2015, de 9 de septiembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura, Deporte y Juventud.

ORDENO:

1.º Aprobar la convocatoria del II Certamen de fotografía “Paisajes con Memoria” y las bases que la regulan que se adjuntan como Anexo de esta Orden Foral.

2.º Autorizar un gasto total de 2.000 euros de los que 1.500 euros serán para el abono a las personas premiadas y 500 para el pago de los miembros del jurado. Dichas cantidades se abonarán del siguiente modo: 1.500 euros con cargo a la partida A21002 A2220 4809 332100 denominada “Premios del Certamen de Fotografía Paisajes con Memoria” y 500 euros con cargo a la partida A21002 A2200 2279 332100, denominada “Comisión de Evaluación Documental”, ambas de los Presupuestos Generales de Navarra para 2019.

3.° Publicar esta Orden Foral y su anexo en el Boletín Oficial de Navarra. Todos estos documentos estarán también disponibles en la página web de la Dirección General de Cultura www.culturanavarra.es

Pamplona, 6 de junio de 2019.–La Consejera de Cultura, Deporte y Juventud, Ana Herrera Isasi.

## ANEXO

***II CERTAMEN DE FOTOGRAFÍA PAISAJES CON MEMORIA “PAISAJES ENERGÉTICOS DE NAVARRA”***

Organiza: Archivo de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra.

El Archivo de la Administración renueva el proyecto “Paisajes con memoria” y organiza el II Certamen de fotografía, dedicado este año al “Paisaje energético de Navarra”, a fin de sensibilizar a la ciudadanía sobre el valor patrimonial de las instalaciones productoras o transmisoras de energía eléctrica de Navarra a través de la imagen.

## BASES

***1.–Tema.***

Las fotografías que se presenten deben estar relacionadas con instalaciones o fábricas de energía eléctrica que contribuyen o han contribuido a la modificación y cambio paisajístico de Navarra desde finales del siglo XIX.

***2.–Concursantes.***

Podrán participar las personas mayores de 18 años.

Quedan excluidas de la participación todas las personas relacionadas con la organización, así como sus familiares.

Cada concursante podrá presentar un máximo de tres imágenes, originales e inéditas.

***3.–Presentación.***

La presentación de la documentación se realizará en un sobre cerrado, uno por cada fotografía presentada a

concurso, en el que figure el título de la fotografía presentada al certamen y que contendrá a su vez, dos sobres:

Sobre 1:

En el exterior solamente figurará el título de la fotografía.

En el interior se incluirá una hoja DIN A4 con los datos personales (nombre, apellidos, DNI, fecha de nacimiento, domicilio, correo electrónico y teléfono), y la localización de la imagen (dirección, municipio...) presentada al concurso.

Sobre 2:

En el exterior solamente figurará el título de la fotografía.

El sobre incluirá la fotografía presentada. En el dorso del soporte de la fotografía figurará únicamente el título elegido.

La fotografía será anónima y no habrá en el interior o en el exterior del sobre ningún dato que pueda identificar la autoría de la foto, más allá del propio título.

Las fotografías deberán ser originales sobre papel fotográfico, en blanco y negro o en color, de dimensiones máximas de 30 x 40 cm, sin enmarcar.

Cada fotografía deberá estar montada sobre un soporte rígido (cartón pluma o similar) de dimensiones obligatorias de 30 x 40 cm.

***4.–Plazo.***

El plazo de entrega de trabajos será desde el 1 de julio hasta el 6 de septiembre de 2019 a las 14:30 horas.

***5.–Lugar de entrega.***

Los trabajos se entregarán (debidamente protegidos para evitar daños en el material), bien presencialmente o por correo postal certificado, en el Registro del Departamento de Cultura, Deporte y Juventud, calle Navarrería, 39, 31001 Pamplona o en la sede del Archivo de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra (Edificio Superser), Carretera de Zaragoza km 3, 3.ª Planta, 31191 Cordovilla (Galar). Horario: de lunes a viernes, de 8:30 a 14:30 horas.

Se facilitará un acuse de recibo por parte de la organización.

***6.–Jurado.***

El Jurado será designado por la entidad convocante y estará compuesto por dos profesionales de la fotografía y dos miembros del Servicio de Archivos y Patrimonio Documental del Gobierno de Navarra. La valoración de las fotografías presentadas se realizará teniendo en cuenta los siguientes criterios:

–Cumplimiento de los objetivos del concurso.

–Técnica fotográfica.

–Originalidad de la composición.

***7.–Premios.***

Los premios se concederán por valoración del jurado, cuya decisión será inapelable.

Primero: 700 euros.

Segundo: 400 euros.

Tercero: 200 euros.

El jurado podrá declarar desiertos alguno o la totalidad de los premios si así lo estimara oportuno.

Las fotografías premiadas junto con una selección de las presentadas al certamen serán objeto de una exposición.

Habrá un 4.º premio, valorado en 200 euros, reservado para el trabajo elegido por votación del público entre los 15 seleccionados para la exposición, que se realizará de forma presencial y a través de redes sociales.

El fallo del jurado se hará público en el portal de Cultura del Gobierno de Navarra http://www.culturanavarra.es/ el 24 de septiembre de 2019 indicando la fecha y el lugar de la entrega de premios e inauguración de la exposición, así como el plazo y la forma de votación para la selección del "premio del público", que se entregará al finalizar la exposición.

De acuerdo con lo dispuesto en la Disposición Adicional Cuadragésimo Segunda del Decreto Foral Legislativo 4/2008, de 2 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral sobre el Impuesto de la renta de las Personas Físicas, la cuantía correspondiente a los premios estará sujeta a retención del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en un porcentaje del 19%.

***8.–Obras y derechos de autoría.***

Las personas que participen se responsabilizan de la autoría y originalidad de las obras presentadas, así como de que no existan derechos de terceras personas sobre las mismas.

Al tomar parte en el certamen, quienes participen mantendrán sus derechos sobre las fotografías presentadas. En todas las acciones de promoción se señalará la autoría de las fotografías utilizadas.

Se autoriza al Archivo de la Administración a publicar las fotografías seleccionadas y su autoría en sus páginas web, redes sociales y en cualquier medio de difusión de este proyecto.

Las fotografías finalistas pasarán a formar parte del Archivo de la Administración. Las fotografías no seleccionadas podrán ser recogidas en la sede del Archivo de la Administración, carretera de Zaragoza, km 3 - 31191 Cordovilla (Navarra) en horario de lunes a viernes, de 8:30 a 14:30.

***9.–Protección de datos de carácter personal.***

El Archivo de la Administración de la Comunidad Foral se compromete a cumplir, en el desarrollo de sus funciones, la normativa vigente relativa a la protección de datos personales y, en particular, el Reglamento (UE) 2016/679, de 27 de abril, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y la libre circulación de esos datos, la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y demás disposiciones complementarias.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre y en el artículo 13 RPD, se comunica a los licitadores:

–Que los datos suministrados con ocasión de su participación en el concurso van a ser incorporados para su tratamiento por el Archivo de la Administración de la Comunidad Foral, con la finalidad de gestionar su participación en el concurso y para comunicarse con el/la participante en un futuro.

–Que no se cederán sus datos personales a terceros sin consentimiento previo y expreso.

–Que pueden contactar con el delegado de protección de datos de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra a través de la Unidad Delegada de Protección de Datos del Gobierno de Navarra adscrita a la Dirección General de Presidencia y Gobierno Abierto;

–Que la comunicación de sus datos personales es requisito legal para ser admitido al concurso, quedando excluido en caso contrario;

–Que, respecto a los datos de carácter personal recogidos para su tratamiento, tienen la posibilidad de ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación, limitación de tratamiento, oposición y a la portabilidad de los datos, mediante solicitud dirigida por escrito al responsable del tratamiento a la dirección antes señalada en los términos que señala la legislación vigente;

–Que sus datos se conservarán hasta lo exigido por la vigente normativa administrativa.

–Que tienen derecho a presentar reclamación respecto a la protección de sus datos ante la Agencia de Protección de Datos.

***10.–Observaciones.***

El hecho de participar implica la aceptación íntegra de las presentes bases.

Para más información:

Archivo de la Administración de la Comunidad Foral.

Carretera de Zaragoza, km 3. 31191 Cordovilla (Navarra).

Teléfono: 848429721.

Correo-e: archivo.administracion.informacion@navarra.es

Web: http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Archivos/Archivos/Archivo+Administrativo+de+Navarra/Donde+estamos.htm

Código del anuncio: F1908028

navarra.es

# 118. ALDIZKARIA - 2019ko ekainaren 19a

## 44/2019 FORU AGINDUA, ekainaren 6koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, "Memoria duten paisaiak" II. argazkilaritza-lehiaketaren deialdia eta haren oinarriak onesten dituena eta 2.000 euroko gastua baimentzen duena. DDBN identifikazioa: 462519.

Dokumentu Ondarea Kudeatzeko Atalak, txosten batean, proposatzen du "Memoria duten paisaiak" II. argazkilaritza-lehiaketaren deialdia egitea, Nafarroako paisaia energetikoei buruz. Lanak aurkezteko epea irailaren 6an amaituko da. Aurtengo lehiaketaren gaia paisaia energetikoa da, irudiaren bidez herritarrak sentsibilizatzeko Nafarroan energia elektrikoa produzitu edo transmititzen duten instalazioen ondare-balioari buruz.

Horrenbestez, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen irailaren 9ko 199/2015 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. "Memoria duten paisaiak" II. argazkilaritza-lehiaketaren deialdia eta haren oinarriak onestea. Oinarriak foru agindu honen eranskinean daude.

2. 2.000 euroko gastua baimentzea, 1.500 euro saridunei ordaintzeko eta 500 euro epaimahaikideei pagatzeko. Diru-kopuru horiek honela ordainduko dira: 1.500 euro "Memoria duten paisaiak II. argazkilaritza-lehiaketaren sariak" izeneko 21002 A2220 4809 332100 partidaren kargura, eta 500 euro "Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordea" izeneko A21002 A2200 2279 332100 partidaren kargura. 2019ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretakoak dira bi partida horiek.

3. Foru agindu hau eta eranskina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren webgunean (http://www.culturanavarra.es/eu) ere egonen dira eskuragai.

Iruñean, 2019ko ekainaren 6an.–Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria, Ana Herrera Isasi.

### ERANSKINA

***MEMORIA DUTEN PAISAIAK II. ARGAZKILARITZA-LEHIAKETA "NAFARROAKO PAISAIA ENERGETIKOAK"***

Antolatzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Artxiboa.

Administrazioaren Artxiboak "Memoria duten Paisaiak" izeneko proiektua berritu eta II. Argazkilaritza-Lehiaketa antolatu du. Aurten "Nafarroako paisaia energetikoak" gaiari buruzkoa da, irudiaren bidez hiritarrak Nafarroan energia elektrikoa ekoizten edo transmititzen duten instalazioen ondare-balioaz sentsibilizatzeko.

### OINARRIAK

***1.–Gaia.***

Aurkezten diren argazkiek XIX. mendearen amaieraz geroztik Nafarroa eraldatzen eta paisaia aldatzen laguntzen duten edo lagundu duten energia-instalazio edo -lantegiekin zerikusia izan behar dute.

***2.–Parte-hartzaileak.***

18 urte baino gehiago dituztenek parte hartu ahalko dute.

Lehiaketatik kanpo geratuko dira antolakuntzarekin zerikusia duten pertsona guztiak, baita haien senideak ere.

Parte-hartzaile bakoitzak hiru irudi aurkeztu ahal izango ditu gehienez; guztiak originalak eta argitaratu gabeak.

***3.–Aurkeztea.***

Dokumentazioa gutun-azal itxi batean aurkeztuko da eta, bertan, argazkia lehiaketara zein izenekin aurkezten den agertuko da. Gutun-azalaren barruan bi gutun-azal sartuko dira:

1.–Gutun-azala.

Kanpoan bakarrik argazkiaren izena agertuko da.

Barruan DIN A4 orri bat sartuko da norberaren datuak (izen-abizenak, NAN-a, jaiotza-data, helbidea, posta elektronikoa eta telefonoa) eta lehiaketara aurkezten den irudiaren kokapena (helbidea, udalerria...) agertuko dira.

2.–Gutun-azala.

Kanpoan bakarrik argazkiaren izena agertuko da.

Gutun-azalean aurkezten den argazkia sartuko da. Argazkiaren euskarriaren atzealdean bakarrik aukeratutako izenburua agertuko da.

Argazkia anonimoa izango da eta ez da argazkiaren egilea identifikatu dezakeen daturik agertuko ez barruan ez kanpoan. Argazkiaren izena baino ez da agertuko.

Argazkiak originalak izango dira, argazki-paperean egindakoak, zuri-beltzean edo koloretan, gehienez ere 30 × 40 cm neurtuko dute eta markoztatu gabe egongo dira.

Argazki guztiak derrigorrez 30 × 40 cm neurtuko dituen euskarri zurrun baten gainean muntatuta egongo dira (kartoi-luma edo antzekoa).

***4.–Epea.***

Lanak aurkezteko epea 2019ko uztailaren 1etik irailaren 6ko 14:30ak arte izango da.

***5.–Aurkezteko tokia.***

Lanak (materialean kalteak ekiditeko behar bezala babestuta) Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren Erregistroan (Nabarreria kalea, 39 31001 Iruña) edo Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren Artxiboaren egoitzan (Superser Eraikina; Zaragozako errepidea 3. km –3. solairua– 31191 Cordovilla (Galar)) aurkeztuko dira, bertaratuta edo posta ziurtatuz bidalita. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

Antolatzaileek hartu-agiria emango dute.

***6.–Epaimahaia.***

Deialdia egiten duen entitateak epaimahaia izendatuko du eta argazkilaritzako bi adituk eta Nafarroako Gobernuko Artxiboen eta Ondare Dokumentalaren Zerbitzuko bi kidek osatuko dute. Aurkeztutako argazkiak honako irizpideen arabera baloratuko dira:

–Lehiaketaren xedeak betetzea.

–Argazkilaritza-teknika.

–Konposizioaren originaltasuna.

***7.–Sariak.***

Sariak epaimahaiaren balorazioaren arabera emango dira, eta haien erabakia apelaezina izango da.

Lehenengoa: 700 euro.

Bigarrena: 400 euro.

Hirugarrena: 200 euro.

Epaimahaiak, egoki baderitzo, sariren bat edo guztiak esleitu gabe utz ditzake.

Saritutako argazkiak eta lehiaketara aurkeztutako argazki-sorta bat erakusketa batean agertuko dira.

Laugarren sari bat egongo da, 200 eurotan baloratutakoa. Publikoak bozkatu eta erakusketarako hautatu diren 15 lanen artean bat aukera dezan erreserbatuko da. Bozketa han bertan edo sare sozialen bidez egingo da.

Epaimahaiaren erabakia 2019ko irailaren 24an jakitera emango da Nafarroako Gobernuko Kulturaren atarian http://www.culturanavarra.es/eu eta sari banaketa eta erakusketa noiz eta non egingo diren adieraziko da. Halaber, “publikoaren saria” aukeratzeko bozketa noiz eta nola egingo den azalduko da. Sari hori erakusketa amaitzen denean emango da.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko foru legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren berrogeita bigarren xedapen gehigarriak xedatzen duenari jarraiki, sariei dagokien zenbatekoa pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipena izango du, hain zuzen, %19koa.

***8.–Lanak eta egile-eskubideak.***

Parte-hartzaileek aurkezten dituzten lanen egiletzaren eta originaltasunaren ardura hartzen dute, bai eta hirugarren pertsonek lanen gaineko eskubiderik ez izatearena ere.

Lehiaketan parte hartzean, parte-hartzaileek aurkezten dituzten argazkien gaineko eskubideak mantenduko dituzte. Sustapen-jarduketa guztietan erabilitako argazkien egileak nor diren adieraziko da.

Administrazioaren Artxiboari baimena ematen zaio hautatutako argazkiak eta haien egileak bere webgunean, sare sozialetan eta proiektu honen berri emateko erabiltzen den edozein hedabidetan argitaratzeko.

Finalera iristen diren argazkiak aurrerantzean Administrazioaren Artxiboaren parte izango dira. Hautatuak ez diren

argazkiak Administrazioaren Artxiboaren egoitzan jaso ahal izango dira, Zaragoza errepidea, 3. km 31191 Cordovilla (Nafarroa) helbidean astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

***9.–Datu pertsonalen babesa.***

Foru Erkidegoko Administrazioaren Artxiboak konpromisoa hartzen du, bere funtzioak garatzerakoan, indarrean dagoen datu pertsonalei buruzko araudia betetzeko, bereziki, apirilaren 27ko 2016/679 Araudia (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa, eta bestelako xedapen gehigarriak.

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 11. artikuluak eta DBA-ren 13. artikuluak xedatzen dutenari jarraiki, lizitatzaileei honako jakinarazten zaie:

–Lehiaketan parte hartzeko eman dituzten datuak Foru Erkidegoko Administrazioaren Artxiboan sartuko direla tratatuak izan daitezen, hartara lehiaketako parte-hartzea kudeatu dadin eta etorkizunean parte-hartzailearekin komunikatu ahal izan dadin.

–Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarren pertsonei lagako aldez aurretik lizitatzaileak berariaz baimendu ezean.

–Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren datuen babeserako delegatuarekin harremanetan jar daitezke Nafarroako Gobernuaren Datuen Babeserako Unitate Delegatuaren bidez, zeina Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusira atxikita dagoen.

–Datu pertsonalak jakinaraztea lehiaketan onartua izateko legezko betebeharra da, eta hala egiten ez duena lehiaketatik kanpo geratuko da.

–Tratatzeko jasotzen diren datu pertsonalei dagokienez, lizitatzaileek aukera dute datuetarako sarbidea izateko, zuzentzeko, indargabetzeko, tratamendua mugatzeko, aurka agertzeko eta eramateko eskubideak erabiltzeko. Horretarako, eskaera idatzi bat egin beharko diote tratamenduaren arduradunari, lehenago adierazitako helbidean eta indarrean dagoen araudiak xedatzen dituen baldintzetan.

–Datuak indarrean dagoen administrazioaren araudiak exijitzen duen arte gordeko dira.

–Datuen Babeserako Agentzian datuen babesari buruzko erreklamazioa aurkezteko eskubidea dute.

***10.–Oharrak.***

Parte hartzeak oinarri hauek guztiak osotasunean onartzea dakar.

Informazio gehiagorako:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Artxiboa.

Zaragozako errepidea, 3. km. 31191 Cordovilla (Nafarroa).

Telefonoa: 848429721.

E-posta: archivo.administracion.informacion@navarra.es.

Webgunea:

http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Archivos/Archivos/Archivo+Administrativo+de+Navarra/Donde+estamos.htm

Iragarkiaren kodea: F1908028